

EXCEL 2010 AURRERATUA

KODEA

2019-35-10-6

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 15 ordu **IKASTARORAKO SARBIDEA** <http://autoprestakuntza.euskadi.eus>

HARTZAILEAK Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak.

BALDINTZAK

- Excel 2010 ikastaroaren aurreko bertsioen ezagutzak izatea.
- Helbide elektronikoa bakarrik ikasle bakoitzeko
- Administrazio Orokorreko ikasleentzat: korporazio-saretik kanpoko posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak.

ESKAKIZUN TEKNIKOAK

SOFTWAREA:

- Windows XP edo berriagoa
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox edo Chrome eguneratuak
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 10 edo berriagoa
- Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua)
- Internetarako konexioa, eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik

HARDWAREA:

- PC Pentium III edo berriagoa
- Soinu-txartela

*Ikastaroa ez dago egiterik MAC gailuetan

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIOAK	BAJAK (ez da matrikula kobratuko)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	OE	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
EKAINA	Ekainaren 3a	Ekainaren 21a	Maiatzaren 3a	Maiatzaren 6tik 10era	Maiatzaren 10a	Maiatzaren 31 arte

ZER LORTU NAHI DUGUN

HELBURU OROKORRAK Excel 2010 programarekin lan egiteko teknika aurreratuak ezagutzea: datu-baseetan lan egiteko modua, datuak inportatu eta esportatzea, iragazkiak eta funtzioak erabiltzea eta informazioaren azterketa taula eta grafiko dinamikoaren bidez egitea.

BERARIAZKO HELBURUAK Datuak hautatzeko iragazkiak erabiltzea. Excel programak eskuragarri dituen funtzioak erabiltzea. Taula eta grafiko dinamikoak erabiltzea. Data eta orduaren datuak erabiltzea. Estiloak eta txantiloak erabiltzea. Diseinu aurreratuak.

GAITASUNAK

Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gai izango da:

- Excel programaren funtzioak erabiltzeko.
- Data eta orduaren datuekin lan egiteko.
- Taula dinamikoak erabiltzeko.
- Grafiko dinamikoak erabiltzeko.
- Datuak iragazki aurreratuaren bidez bilatzeko.
- Estiloak eta txantiloak erabiltzeko.

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA Autoprestakuntzako online ikastaroa, teoria eta praktika uztartuz, ikastaroak 6 unitate didaktiko ditu, simulaziozko ingurunean ariketak, autoebaluaketarako testa eta unitate bakoitzeko amaierako testa. Programa sei fitxatan banatuta dago: *Ibilbide pertsonalizatua* (orientaziorako maila-proba, hautazkoa; emaitzaren arabera hainbat

EXCEL 2010 AURRERATUA

ikasgai ditu ezagutza-maila hobetzeko), *Bista Orokorra* (eduki multimediadun 54 ikasgai, gorde edo inprimatzeko eta ariketa praktiko interkatiboak), *Gogokoenak* (erabiltzaileak sor dezakeen eduki-zerrenda), *Prestakuntzarako gomendioak* (kapituluko testa egin ondoren gorde daitezkeen gomendioak), *Glosarioa* (aurkibideko zerrenda alfabetikoa) eta *FAQ* (ohiko galderak, erantzunekin).

1. Edizio aurreratua

Gelaxka-mailei izena jartzea. Gelaxkaren edukiari formatua ematea, formularen emaitzaren arabera. Erabiltzaileak definitutako gelaxka-formatuak sortzea. Menpeko formatuak. Edukiak txertatzea. Datuak inportatu eta esportatzea. Taularen guneak erakutsi eta ezkutatzea. Liburuak babestea.

2. Datuak manipulatzeko

Erabiltzaileak definitutako sailkapena. Iragazki gehigarria. Estiloak sortu eta izendatzea. Txantiloireduak sortzea. Liburu bat sortzea txantiloiredu baten bidez.

3. Funtzioak

Data-ordua funtzioak. Matematika funtzioak. Estatistika funtzioak. Finantza-funtzioak. Bilatu funtzioa. Funtzio logikoak. Funtzio habiaratuak sortzea. Formula-egiaztatzea erabiltzea.

PROGRAMA

4. Data eta orduarekin lan egitea

Denbora-kalkuluen oinarriko informazioa Excelen. Denbora-datuekin kalkulu errazak egitea. Data eta ordua funtzioekin lan egitea. Aplikazio praktikoak. Berehalako bilaketa.

5. Taula eta grafiko dinamikoak

Taula dinamikoak txertatzea. Eredu dinamikoak izendatzea. Taula dinamikoaren diseinua definitzea. Taula dinamikoak iragazi, eguneratu eta ordenatzea. Xehetasunak lortzeko moduak sortzea. Grafiko dinamikoak.

6. Diseinu bereziak egiteko aukerak erabiltzea

Gelaxka-erreferentziak beste kalkulu-orrietan erabiltzea. Beste liburutako gelaxka-erreferentziak erabiltzea. Tauletan iruzkinak txertatzea. Makroekin lan egitea. Datuak txertatzean baliozkotzea egiaztatzea. Datuen baliozkotzea egiaztatzea. Zerrenda bateko datu-sarrerara baimentzea. Hiperestekak erabiltzea.

Ebaluazioaren helburua izango da ikastaroaren helburu orokorrak eta berariazkoak betetzen direla bermatzea.

Ikastaroaren ebaluazioak ariketa praktikoak ditu, autoebaluaziorako test bat, amaierako test bat eta aprobetxamendu-proba bat. Erabiltzaileak, **ariketa praktiko** interaktibo bidez, simulaziozko ingurunean praktikatu dituen ikastaroaren ikasgaiaren kontzeptuak. Gainera, unitate bakoitzeko **autoebaluazio-test** bat egin ahalko du, eta beste bat ikastaro bukaeran; 30 galdera ditu, hainbat ariketekin: erantzun bakar edo anitzekoak, ordenatzea, hutsunak betetzea eta arrastan eramatea.

EBALUAZIOA

Aprobetxamendu-proba It-Txartela sistemaren bidez egingo da:

- 70 galderako online testa izango da eta erantzuteko 4 aukera izango ditu. Probaren iraupena gutxi gorabehera 90 minutukoa izango da (Ikus *It-Txartela demoa* <https://www.it-txartela.net/IVAP/usuario/demoExamen.do>)

- Proba egiteko, hurrengo helbidean eskatuko da berau egiteko data, ordua eta lekua:

<https://www.it-txartela.net/IVAP>

- **7 eguneko** epean egiteko **bi azterketa-deialdi** daude. (ikus *Informazio gehiago > Egutegia*).

- Azterketa hiru lurraldeetako **IVAPeko egoitzetan** edo horretarako egokituak dauden udalerrietako **Kzguneetan** egin ahalko da.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Posta elektronikoen bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

Aprobetxamendu-egiaztagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Aprobetxamendu-proba gainditzea: gutxienez, 53 erantzun zuzen

ZIURTAGIRIAK

- It-Txartelako webgunetik eta edozein momentutan It-Txartelaren ziurtagiria deskargatzeko aukera duzu "Erabiltzailearen historia eta matrikulen gestioa" atalean.
- Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eta eskuragarri izango duzu posta elektronikoen jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.

EXCEL 2010 AURRERATUA

PREZIOA **107€**
AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jardura eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)

Laguntza teknikoa behar izanez gero:

- Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) **440**
- Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara

LAGUNTZA **It-txartela probaren** funtzionamenduari buruz laguntza behar izanez gero:

- Deitu hurrengo telefono-zenbaki honetara (945016) **902 702 142**
- Astelehenetik ostegunera 09:00etatik 18:30era. Ostiraletan 09:00etatik 16:00etara.

Aministrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus

**ARGIBIDE
GEHIAGO**

It-txartela sistema bidezko aprobetxamendu-proba egiteko **egutegia**:

2019 AUTOPRESTAKUNTZAKO IKASTAROEN AZTERKETAK				
IKASTAROEN DEIALDIAK	Izena emateko epearen hasiera	Azterketak egiteko epea		Azterketan izena emateko epemuga
OTSAILA	otsailaren 4a	otsailaren 21etik martxoaren 1a arte		otsailaren 25a
EKAINA	ekainaren 3a	ekainaren 20tik 28ra		ekainaren 24a
URRIA	urriaren 7a	urriaren 23tik 31ra		urriaren 25a
OHARRA				
Azterketak egiteko epea	7 egun daukazu azterketak egiteko; bat edo bi deialdi dituzten ikastaroen azterketak egiteko			
Matrikula eskaera edo aldaketa	Azterketa data baino 4 egun natural lehenago arte. <u>Salbuespena</u> : azterketa eguna baino egun bat lehenago arte eskaera egin edo moldatu dezakezu baldin eta, aukeratutako egunean lekua eta pertsonaren bat matrikulatuta balego.			
Tokia	IVAPeko egoitzetan	Vitoria-Gasteiz (Lakua)	Bilbao	Donostian
Ordutegia		Donostia-San Sebastián kalea, 1 8:30/10:30/12:30	Alameda Recalde, 18 9:00/11:00	San Bartolomé, 28 9:00/11:00

OHARRA: ikastaroa irekita egongo da azterketak egiteko epearen azken egunera arte.